


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Apirilean, martxoarekin alderatuta, zertxobait jaitsi da Lanbiden erregistratutako langabeen kopurua. **6.849 langabe zenbatu dira (3.063 gizon eta 3.786 emakume):**


- Langabezia % 2,2 jaitsi da martxoaren aldean.
- Langabezia % 3 igo da aurreko urteko apirilaren aldean.

Apirilean, bai gizon langabeen kopurua bai emakume langabeena zertxobait jaitsi dira (-%2 eta -%2,5, hurrenez hurren).


Pasa den martxoan, 2021eko martxotik, lehen aldiz igo zen langabeen kopurua Donostian, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. **Apirilean, berriz ere, langabeen kopuruak gora egin du urte batetik bestera.**

2023ko apirilarekin alderatuta, langabeen kopurua % 3 igo da (martxoan % 3,8). Gizon eta emakume langabeen kopuruak gora egin badu ere, langabeziaren hazkunde hori gizoneko taldean kontzentratzen da batez ere (+%6,2 gizonetan eta +%0,5 emakumeetan).

Jarduera tasaren bilakaera (%)



Okupazio tasaren bilakaera (%)



Jarduera eta okupazio tasak Eustatek argitaratzen ditu hiru hilabete behin. Eustatek, Lanbide ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan) ordea, langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa.

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,7	8,1	10,0
Gizonen langabezia indizea	7,1	7,0	8,5
Emakumeen langabezia indizea	8,2	9,3	11,5
Genero arrakala	1,03	2,38	3,0

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea 7,7koa da: 7,1 gizonetan, 8,3 emakumeetan eta 1,0 puntu portzentualeko genero-arrakala.

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	8,1	-1,8
Donostia	7,7	-2,3
Bizkaia	10,8	0,8
Bilbo	12,6	2,6
Araba	11,0	1,0
Gasteiz	11,4	1,4

Lurraldearen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, **Gipuzkoa eta Donostia dira EAEan langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.**

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.849	%100	-%2,2
Gizonezkoak	3.063	%45	-%2,5
Emakumezkoak	3.786	%55	-%2,0
Gipuzkoa	29123		-%1,9
EAE	109.553		-%1,7

JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2024ko lehen hiruhilekoko)


	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	60,65	53,9	57,1
Donostia	61,6	53,1	57,0
Bizkaia	60,9	50,7	55,5
Bilbo	63,9	50,3	56,7
Araba	64,3	51,7	57,8
Gasteiz	64,3	50,9	57,3
EAE	61,3	51,9	56,4

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2024ko lehen hiruhilekoko).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,0	50,2	53,5
Donostia	57,8	48,8	53,0
Bizkaia	55,5	45,9	50,5
Bilbo	57,7	44,2	50,5
Araba	59,0	47,9	53,3
Gasteiz	58,1	47,4	47,4
EAE	56,6	47,6	51,9

Lan egiteko adinean dauden donostiarren % 57 modu aktiboan ari dira lanean edo lan bila. Enpleguak bakarrik kontuan hartzen baditugu, nabarmenezkoa da lan egiteko adinean dauden donostiarren % 53k enplegu bat dutela.

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, otsailean:

- 55 urtetik gorako 2.433 langabe erregistratu dira Lanbiden (-29 martxoarekin alderatuta).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.617 langabe erregistratu dira Lanbiden (-13 martxoarekin alderatuta).
- 35-44 urte bitarteko 1.221 langabe erregistratu dira Lanbiden (-23 martxoarekin alderatuta).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.139 langabetu erregistratu dira Lanbiden (-34 martxoarekin alderatuta).
- 25 urtetik beherako 439 langabe erregistratu dira Lanbiden (-55 martxoarekin alderatuta).

Langabeen kopuruak behera egiten du adin-tarte guztietan.

Biztanleria-mailan pisu handiena duten 55 urtetik gorakoek jarraitzen dute izaten langabezian pisu handiena duen kolektiboa. Era berean, nabarmendu behar da adin nagusiko langabeek prestakuntza-maila baxuagoak dituztela (oinarrizko ikasketak soilik dituzten 3.111 langabetuetatik 1.145ek 55 urte baino gehiago dituzte, 481ek 30 urte baino gutxiago).

Martxoarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin du.

2023ko apirilarekin alderatuta, gizon eta emakume langabeen kopuruak gora egin duten arren, hazkunde hori batez ere gizonen kolektiboan kontzentratzen da (emakume langabeen kopurua % 0,5 hazi da eta gizonena % 6,2).

Apirilean, bai EAEn, bai Gipuzkoan, langabeen kopuruak bera egin du. Gainera, Donostiakoa baino proportzio txikiago batean egin dute behera (Gipuzkoa - % 1,9 eta EAE - % 1,7).

2023ko apirilarekin alderatuta, Donostiako langabeen hazkundera (+ % 3) EAEn (+ % 1,4) baino zertxobait handiagoa eta Gipuzkoakoa (+%3,3) baino txikiagoa izan da.

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	%56,0	%44,0	-12,1
25 eta 34 urte bitartekoak	%48,1	%51,9	3,8
35 eta 44 urte bitartekoak	%40,4	%59,6	19,2
45 eta 54 urte bitartekoak	%45,8	%54,2	8,3
55 urtetik gorakoak	%42,5	%57,5	14,9

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.


Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, datuek pentsarazten digute oraindik ere **oztopoak eta aurreiritziak daudela, emakumeek enplegua lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.**

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia-erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alabak edo beste senitarteko batzuk zaintzean.

Testuinguru horretan, **datuek pentsarazten digute 35 urtetik gorako emakumeen artean langabeziaren kronifikazioa dagoela.**

Kronifikazio horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntuak gorakoa baita.

Langabeek lortutako gehieneko hezkuntza maila



Langabeen % 45,4ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 18k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Bestalde, goi-mailako ikasketak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) dituzten emakume langabeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, eta esan dezakegu **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonen baino kualifikazio handiagoa dutela**. Aurrerago aztertuko dugun bezala, horrek pentsarazten digu genero-desberdintasunak daudela, emakumeen kolektiboarentzat kaltegarriak, lan-merkaturako sarbidean eta kalitatezko enpleguetan.


	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%59,1	%55,0	%55,1
35 urtetik beherakoak	%23,0	%24,9	%24,4
Iraupen luzeko langabezia	%44,6	%45,4	%49,3
Atzeritarrak	%15,3	%20,1	%18,8
EB-ko atzeritarrak / Atzeritarrak	%18,9	%17,0	%15,5
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%18,0	%11,2	%11,1
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%45,4	%54,0	%56,2

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:

- *Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabetu gehiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak gazteen langabezia txikiagoa du.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.*
- *Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar langabeen guztizkoari dagokionez (%18,9), handiagoa da Gipuzkoan (% 17) eta EAEn (% 15,5) erregistratutakoa baino.*




(20 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren garrantzi demografiko bera biztanleria osoarekiko 3 lurraldeetan: % 58.)

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailiek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Apirilean **emakumezkoen kontratazioa gizonetzkoena baino handiagoa** izan da. Hala ere, gizonetako langabeen beheraka baino xumeagoa da emakume langabeen jaitsiera.

Bestalde, apirilean, **emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia lanaldi partzialekoak dira, eta gizonek sinatutako kontratuen % 31 baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, nabarmendu beharra dago **emakume atzeritarren garrantziak gora egin du kontratazioan azken hilabeteetan**. Apirilean, martxoan bezala, kontratatutako pertsona guztietatik, % 12,3.

Apirilean 7.201 kontratu sinatu dira Donostian, hau da, martxoan baino % 2,7 gehiago (martxoan baino 191 kontratu gehiago) eta 2023ko apirilean baino % 18,5 gehiago (1139 kontratu gehiago.).

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.168	%44,0	4.033	%56,0	7.201
Aldi baterakoak	2.374	%44,1	3.010	%55,9	5.384
Mugagabeak	794	%43,7	1.023	%56,3	1.817
Lanaldi partziala	997	%33,6	1.967	%66,4	2.964
Lanaldi osoa	2.171	%51,2	2.066	%48,8	4.237

Kontratu horiekin 5.182 pertsona kontratatu dira, hau da, % 0,5eko jaitsiera izan da martxoaren aldean (28 pertsona gehiago kontratatu dira). 2023ko apirilaren aldean kontratatutako pertsonen kopurua % 11 igo da (520 pertsona gehiago)

Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,39 kontratu sinatu ditu.


Nabarmentzekoa da, kontratazioak gora egin duen arren, kontratazio mugagabea % 6 jaitsi dela martxoaren aldean.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.253	%43,5	2.929	%56,5	5.182
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4		1,4		1,4
24 urtetik beherakoak	549	%44,1	696	%55,9	1.245
25 eta 34 urte bitartekoak	676	%44,8	834	%55,2	1.510
35 eta 44 urte bitartekoak	439	%44,8	540	%55,2	979
45 eta 54 urte bitartekoak	415	%41,6	582	%58,4	997
54 urtetik gorakoak	174	%38,6	277	%61,4	451
Atzerritarrak	442	%41,0	637	%59,0	1.079

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan gizonak baino emakume gehiago kontratatu dira. Batez ere 45 urtetik gorakoan adin-tartean.
- Kontratazio mugagabearen garrantzia gutxi gorabehera 2 ehuneko-puntu jaitsi da (kontratu guztien % 25,2; % 27,4 martxoan; % 27,1 otsailan, % 23,8 urtarrilean eta % 20 abenduan).
- Partzialtasuna aurreko hilabeteetako mailen antzekoa da; apirilean sinatutako kontratuen % 41,2 lanaldi partzialekoak baitira. Kontratu mota hau emakumeek sinatzen dituzte batez ere (kontratu horien % 66).
- Kontratuen % 53 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
- Kontratuen % 28 45 urtetik gorako pertsonak sinatzen dituzte. Horien guztien % 59 emakumeak dira.
- Apirilean kontratatutako pertsonen % 20,2 atzerritarrak ziren (% 22,6 martxoan). Gainera, kontratatutako atzerriar jatorriko pertsonen % 59 emakumeak ziren.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Hiriko kontratu guztien % 17,9 sinatu du (% 18,2 martxoan eta % 15,8 otsailean).
- Hiriko kontratu mugagabe guztien herena (% 33,1) sinatu du (% 30,1 martxoan eta % 26,2 otsailean).
- Sektore honetan sinatu dira kontratu mugagabe gehien, 602 kontratu mugagabe (martxoan baino 23 kontratu gehiago).
- Kontratazio mugagabearen garrantzia pixka bat hazi da berriro sektorean, duela hilabete pare bat izan zen kontratazio mugagaberako joera-alaketari jarraipena emanez. Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 47 mugagabeak dira (% 46 martxoan, % 45 otsailean eta % 34 urtarrilean).
- Ehuneko 2 puntu jaitsi da kontratazioaren partzialtasuna martxoarekin alderatuta. Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 53 lanaldi partzialekoak dira.

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 11 sinatu du (% 12,2 abenduan, % 11,3 urtarrilean eta % 10,4 otsailean). Abenduaz geroztik, lehen aldiz hazi da merkataritzaren pisua hirian egiten den kontratazio osoarekiko.
- Hiriko kontratu mugagabeen % 3 (% 14,7 martxoan), eta lanaldi partzialeko kontratuen % 15,5 (% 13,5 martxoan) sinatu ditu.
- Apirilean sinatutako kontratuen % 30 mugagabeak dira (% 28 urtarrilean, % 34 otsailean eta % 40 martxoan). Duela 2 hilabete hasi zen kontratazio mugagaberako joera moztuz.
- Lanaldi partzialeko kontratazioa ez da asko aldatu. Erregistratutako kontratuen % 57 lanaldi partzialekoak dira (% 60 urtarrilean, 54% otsailean eta % 55 martxoan).

¹SEIC: SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, pertsonen zuzendutako SEICetan (hezkuntza eta osasuna) eta enpresei zuzendutako SEICetan banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltzeirak (459 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (24 kontr.), higiezin-jarduerak (13 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.040 kontr.), administrazioa publikoa (66 kontr.), beste zerbitzu batzuk (107 kontr.) eta etxeetako jarduerak (123 kontr.).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	1 (%0,1)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	68 (%3,7)	%91,2	%8,8
Industria	33 (%1,8)	%48,5	%51,5
ostalaritza	602 (%33,1)	%53,0	%47,0
Merkataritza	236 (%13,0)	%38,6	%61,4
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	61 (%3,4)	%24,6	%75,4
Osasuna eta gizarte zerb.	161 (%8,9)	%21,1	%78,9
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	415 (%22,8)	%31,6	%68,4

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 -	-	-
Eraikuntza	11 (%0,4)	%63,6	%36,4
Industria	55 (%1,9)	%58,2	%41,8
ostalaritza	688 (%23,2)	%44,6	%55,4
Merkataritza	456 (%15,4)	%26,8	%73,2
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	258 (%8,7)	%24,4	%75,6
Osasuna eta gizarte zerb.	570 (%19,2)	%13,5	%86,5
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	709 (%23,9)	%39,6	%60,4

behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen duela hirian; Donostian sinatzen diren 20 kontratutik 5 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: industrian, hezkuntzan eta osasun – gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 88, %86 eta % 87 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, hezkuntzan eta osasun sektorean. Azken horretan, lanaldi partzialeko kontratuen % 86 emakumei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua da).

Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak eskaintako kontratazioan (% 0), industrian (% 27) eta eraikuntzan (% 11). Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 79 eta osasun-sektoreko kontratuen % 78 emakumeen kolektiboarentzat dira.


behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen duela

DSBEaren hartzaileak (martxoa)

Gaur egun, ez daukagu datu eguneraturik DSBEa jasotzen dutenen kopuruari eta profilari buruz.

Eskuragarri dauden azken datuak martxoari buruzkoak dira, hilabete horretan **3.615 pertsonak jaso baitzuten DSBEa hirian** (23 hartzaile gehiago otsailean baino).


Apirileko daturik ez dagoenez, orrialde honetan martxoko datuak agertzen dira, Donostian DSBEa jasotzen dutenen kopuruari eta ezaugarriei buruzko balio orientagarriak izateko.



Nabarmendu daiteke:

- Urtarrilean **DSBEa jaso zutenen % 59,3 emakumeak dira.**
- **55 urtetik gorakoak DSBE jasotzen zutenen % 47,3 ziren** urtarrilean.
- Urtarrilean **DSBEa jasotzen zutenen % 17,8ek lanaren osagarri gisa** jaso zuten.
- **Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenen % 27,8k goi-mailako ikasketak zituen** urtarrilean Donostian (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera (martxoa)



(martxoko datuak)

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,3	%0,6	%0,3
20 - 24 urte	%2,1	%2,4	%2,5
25 - 29 urte	%4,8	%5,5	%5,5
30 - 34 urte	%7,2	%8,0	%7,7
35 - 39 urte	%8,7	%10,0	%9,9
40 - 44 urte	%9,0	%11,4	%11,1
45 - 49 urte	%10,1	%11,7	%10,9
50 - 54 urte	%10,5	%11,3	%10,8
55 urtetik gora	%47,3	%39,1	%41,3
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,9	%62,0	%59,6
Batxilergoa	%9,0	%6,8	%7,0
Lanbide Heziketa	%20,9	%17,3	%19,5
Unibertsitatea	%6,9	%4,4	%4,5
Informaziorik gabe	%9,4	%9,5	%9,4
Lanaren osagarritasuna	%17,8	%15,7	%17,0
Oinarrizko DSBE modalitatea	%82,2	%84,2	%83,0
Gizonak	%42,8	%42,6	%42,8
Emakumeak	%59,3	%57,4	%57,2

(martxoko datuak)

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Aiete	14.066	141	% 1,0
Altza	19.517	597	% 3,1
Amara Berri	29.377	436	% 1,5
Antiguo	13.754	137	% 1,0
Añorga	2.448	27	% 1,1
Ategorrieta-Ulía	3.874	80	% 2,1
Centro	21.352	353	% 1,7
Egia	14.208	332	% 2,3
Gros	17.563	277	% 1,6
Ibaeta	9.721	124	% 1,3
Igeldo	1.040	7	% 0,7
Intxaurrondo	15.010	541	% 3,6
Loiola	6.073	172	% 2,8
Martutene	2.592	81	% 3,1
Miracruz-Bidebieta	8.565	287	% 3,4
Miramón-Zorroaga	2.302	19	% 0,8
Zubieta	292	2	% 0,7